

LANTIKek ingurumena kudeatzeko sistema bat du, ISO14001:2015 arauaren arabera. Funtsean, ingurumenean kalteak eragin ditzaketen gure jarduketan elementuak identifikatzen eta ingurumen-inpaktu horiek kenduko edo minimizatuko dituzten praktikak martxan jartzean datza.

Enpresaren Kalitatearen Kudeaketarako Sistemaren Politika Integratuan jasotzen da gure ingurumen-konpromisoa:

“ISO 9001, ISO 14001, ISO 27001 eta ISO 20000-1 arauak betez, Lantiken ikuspegia betetzeko euskarria eta laguntza ematea da Kalitatearen Kudeaketarako Sistema Integratuaren azken helburua. Lantiken asmoa Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaile estrategikoa izatea da modernizazio-prozesuan, aholkularitza estrategikoa, funtzional eta teknologikoaren bidez, eta informazioaren eta ezagutzaren teknologien erabileran oinarritutako soluzio integralak emanez.”

Ingurumen-konpromisoa:

LANTIKek, halaber, ingurumena etengabe hobetzeko eta ingurumena babesteko konpromisoa hartu du, kutsaduraren prebentzioa eta erakundearen testuinguruari dagozkion beste konpromiso batzuk barne. Hori honako hau eginez lortuko da: alderdi guztiak kontrolatuz, bereziki kontsumoak eta sortutako hondakinen kudeaketa, eta aplikatzekoak diren legezko baldintzak eta erakundeak sinatzen dituen beste batzuk betetzen direla kontrolatuz. Politika hau Lantikeko langile guztiei edo Lantiken izenean lan egiten dutenei jakinarazi zaie eta erreferentzia-marko gisa erabiltzen da erakundeak planteatutako ingurumen-helburuak ezartzeko eta hobetzeko.

LANTIKeko langileek, beronen hornitzaileek eta hornitzaileen langileek konpromiso horren berri izan behar dute, eta konpromiso hori aplikatu.

Erakunde hornitzaileek ingurumen-legeriaren berri izan behar dute, eta aplikatu daitekeen legeria hori bete.

Hau da Lantiken Kalitatearen Kudeaketarako Sistema Integratuaren ingurumen-kontrolerako abian jarriko dagoen sistema:

“Ingurumenean edo lan-osasunean eraginik izan dezakeen jalkitze, isuri edo jario oro saihestuz bilduko dira hondakinak. Hondakin arriskutsuak identifikatzeko, aplikatu daitekeen legeriaren arabera egiten diren etiketak erabiliko dira.

Ontziratzea hondakinaren ezaugarriei egokituko zaie, eta horrela saihestu egingo da edukia galtzea. Ontziak egiteko materialak edukiak berak ez kaltetzeko modukoak izango dira, eta edukiarekin ez dute konbinazio arriskutsurik sortuko.

Hondakinak biltegitzatzeko tokia behar bezala seinalatzaturik egongo da eta kutsadura beste ingurune batzuetara igarotzea ekiditeko behar diren bitarteko guztiak izango ditu.

Dena dela, hondakin arriskutsuak gehienez 6 hilabetez egon ahalko dira biltegituta, Eusko Jaurlaritzaren Hondakin Arriskutsuen Zerbitzuak bestelakorik esaten ez badu.

Hondakin geldo birziklagarriak kanpoko enpresei emango zaizkie, balioa eman diezaieten edo birzikla ditzaten, ahal den kasu guztietan deuseztatzea edo biltegitatzea saihestuz, edo udal-bilketaren bidez kudeatuko dira, etxeei dagozkien kantitateak badira.

Hondakin arriskutsuak (osasan-arlokoak barne), baimendurik dauden kudeatzaileei entregatuko zaizkie, hemen adierazten den prozedurari jarraikiz:

- LANTIKen hondakin arriskutsu bakoitzaren arduradunak kudeatzaileak hondakinak onartzeko eskaera egingo dio kudeatzaileari berari.
- Hondakinak kudeatzaileari entregatu aurretik, kudeatzaile horrek hondakinak onartu beharko ditu.
- Hondakinen entrega-epea baino hamar egun lehenago, Eusko Jaurlaritzaren Hondakin Arriskutsuen Zerbitzuari jakinaraziko zaio horiek entregatuko direla.
- Hondakin arriskutsuak ematen diren unean, hondakin arriskutsuen kontrol eta jarraipenerako agiria beteko da, betiere eredu ofizialean ezarritako jarraibideekin bat etorritik.
- Hondakin arriskutsuak garraiolariari emango zaizkio, baldin eta indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak betetzen baditu, hondakin-mota horiek garraiatzeko.

Hondakin arriskutsu guztiak indarrean dagoen legeriaren arabera etiketatuta daude.

Gainera, informatikako ekipamendua instalatzearen, kentzearen eta mantentzearen ondorioz sor daitezkeen hondakin guztiak PMA-2 prozeduran ezarritako dagoenaren arabera kudeatu beharko dira. Ingurumenarekin loturik dauden jardueren Kontrol Operazionala

Erakunde hornitzaileak ingurumenari buruzko edozein gertakariri buruz jakinarazi beharko du eta ingurumenaren alorreko proposamenak egin ahal izango ditu.

Praktika eta gomendio horiek bereziki errespetatu behar dituzte LANTIKen instalazioetan zerbitzua ematen duten enpresa guztiek.